

GOBERNU BATZARRA

2016. 07. 26

Alkatea:	Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamaseiko uztailaren hogeita seian, goizeko 08:00etan Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko.
Olatz Peon Ormazabal	
Zinegotziak:	
Patxi Amantegi Zubiria Nerea Letamendia Belloso Iñigo Alonso Sarasibar	
Idazkaria:	
Jose Luis Unanue Ugalde	
Kontuhartzaitzako Teknikaria:	
Paulino Alonso Eraso	
	1.- Aurreko akta onartzea.
	2.-Gizarteratzeko zerbitzu teknikoaren kontratazioa.
	3.-Tolosako Nerabeentzako balioanitzeko Zerbitzuaren Kudeaketa kontratua adjudikatzea.
	4.- Gipuzkoako Bertsozale Elkartearekiko hitzarmena.
	5.- Kultur Elkarten subentzio banaketa.
	6.-Iurreamendi Egoitza: Ekaineko faktura.
	7.- Berdintasuneko dirulaguntzak.
	8.- Aldabako Intxur Auzo elkartea eta udalaren arteko hitzarmenaren aldaketa.
	9.-Tolosako Merkataritza, Ostalaritza, Turismo eta Feriak dinamizatzeko zerbitzuaren esleipena.
	10.-Ferialekua birgaitzeko baldintza pleguak onartzea.
	11.-Tolosako Paper Eskolaren 50. urteurrena. Udalaren dirulaguntza.
	12.-Berazubiko Biribilgunea eta suhiltzailekoen artean irisgarritasuna hobetzeko proiektua. Proyecto de mejora de accesibilidad de la rotonda de Berazubi a la rotonda de Bomberos.

13.-“7.1 Ezkerraldea” azpiesparruko plan bereziaren aldaketari hasierako onespina ematea/ Modificación del Plan Especial de rehabilitación del subámbito “7.1 margen izquierda”.

14.-Tolosako Udalerriko eraikin publikoak eta hiri altzariak garbitzeko zerbitzua kontratatzeko espediente onartzea.

15.-24/2016 zenbakia duen faktura-zerrenda.

1.- Aurreko akta onartzea.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2016ko uztailaren 18an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

2.- Gizarteratzeko zerbitzu teknikoaren kontratazioa.

Gizarteratzeko zerbitzuaren kontratazioa egiteko, Arrats enpresa bakarrik aurkeztu da.

Kontuan izanda Kontratazio mahaiaren parte hartu duten teknikarien balorazioa eta Gizarte Politika batzordean egin duen proposamenarekin bat etorriz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Gizarteratzeko zerbitzua eman ahal izateko Arrats enpresari kontratua adjudikatzea, baldintza nagusi hauekin.

- **IRAUPENA:** Emakidaren iraupena urtebetekoa izango da, kontratu administratiboa sinatzen denetik kontatzen hasita (2016ko irailaren 26a). Hala ere, kontratua urte bat luzatu ahal izango da, aurretik Gobernu Batzarrak hala erabakitzen badu.
- **PREZIOA:** Hileko prezioa 3.700€-koa izango da. Arrats elkarteak BEZik gabe fakturatzen du, irabazi asmorik gabeko elkarte baita.

BIGARRENA.-Erabakiaren berri ematea Arrats elkarteari, Kontu-hartzaitzari eta Gizarte Politikako departamentuari.

3.-Tolosako Nerabeentzako balioanitzeko Zerbitzuaren Kudeaketa kontratua adjudikatzea.

Lehenik, 2016ko uztailaren 15eko 2016/1378 Dekretuaren bidez, Maindi Elkartearen eskaintza, Tolosako nerabeentzako balioanitzeko zerbitzuaren kudeaketa kontratatzeko, lizitatzailer onuragarriena sailkatu zuen alkateak. Aipaturiko Dekretuarekin enpresari bidezko dokumentazioa aurkeztea errekeritu zitzaion, hamar egun baliodunen epearen barruan.

Jarraian, 2016ko uztailaren 19an, enpresak behin betiko bermea jarri zuen; 3.200 euro, hain zuzen ere. Era berean, exijitutako dokumentu justifikatzaileak aurkeztu zituen.

Dokumentazioa aurkeztuta, eta Sektore Publikoko kontratuen Testu Bateratuaren 151.4 artikulua xedatutakoaren arabera, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.-Maindi Elkarteari Tolosako nerabeentzako balioanitzeko zerbitzuaren kudeaketa kontratua adjudikatzea, honako ezaugarri nagusi hauekin:

- Prezioa: urteko 64.000 euro.

-Epea: Bi urtekoa izango da, hala ere, kontratu hori urtero luzatu ahal izango da beste bi urtez, baldin eta aldez aurretik Gobernu Batzarrak hala erabakitzen badu.

Adjudikazioa Gazteria teknikariaren txostenean oinarritzen da.

BIGARRENA.- Kontratua sinatzeko data eta lekua finkatzea: 2016ko irailaren

La Alcaldía, mediante Decreto n.º 2016/1378, de fecha 15 de julio de 2016, clasificó a la empresa Maindi Elkartea como licitadora que presentó la oferta más ventajosa para la contratación de la gestión del servicio polivalente para los/as adolescentes de Tolosa. En dicho Decreto, se requirió a la empresa mencionada a que, en el plazo máximo de 10 días hábiles, presentara la documentación correspondiente.

En fecha 19 de julio de 2016 la empresa constituyó garantía definitiva por importe de 3.200 euros. Asimismo, presentó los documentos justificativos exigidos.

Examinada la documentación presentada, y de conformidad al artículo 151.4 del Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

ACUERDA

PRIMERO.- Adjudicar a Maindi Elkartea el contrato de gestión del servicio polivalente para los/as adolescentes de Tolosa, siendo las características principales las siguientes:

- Precio: 64.000 euros/año.

- Plazo: Dos años. No obstante, podrá prorrogarse anualmente por otros dos años, previo acuerdo de la Junta de Gobierno.

La adjudicación se basa en el informe emitido por la técnica de Juventud.

SEGUNDO.- Fijar como fecha del contrato el día 5 de septiembre de 2016,

5ean, 12:00etan, idazkaritzan.

a las 12:00 horas, en la Secretaría del Ayuntamiento.

HIRUGARRENA.-Kontratuaren formalizazioa kontratatzailearen profilean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, ebazpen honen datatik kontatuta berrogeita zortzi eguneko epearen barruan.

TERCERO.- Publicar la formalización del presente contrato en el perfil del contratante y en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, en el plazo de cuarenta y ocho días a contar desde la fecha del presente acuerdo.

4.- Gipuzkoako Bertsozale Elkartearekiko hitzarmena.

Tolosako Udalak San Joanetako bertso saioa eta ikasturte osoko bertso eskola diruz laguntzen ditu.

Aurtengo aurrekontuan, 6000 euro daude aurreikusita aipaturiko jarduera horiek diruz laguntzeko.

Kultura, Festa eta Gazteriaren Batzordeak egindako proposamenari jarraiki, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Goran aipaturiko jarduerak (San Joanetako bertso saioa eta ikasturte osoko bertso eskola) aurrera eramateko 6000 euroko dirulaguntza ematea Gipuzkoako Bertsozale Elkarteari.

BIGARRENA.- Aipaturiko dirulaguntza arautuko duen hitzarmena onartzea.

HIRUGARRENA.-Erabaki honen berri ematea Kontu-hartzaitzari, Kultura, Festak eta Gazteria departamentuari eta Gipuzkoako Bertsozaleen Elkarteari.

5.- Kultur Elkartearen subentzio banaketa.

Kulturako dirulaguntzen banaketarako erabili den prozedura eta irizpideak aztertu dira, baita ere Kultura, Festak eta Gazteria batzordean. Talde bakoitzari egokituko litzaiokeen diru kopurua ere zehaztu da.

Aipatutakoa kontuan izanik eta Kultura, Festak eta Gazteria batzordeak jaulki duen txostenarekin bat etorritz, Gobernu Batzarrak aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Ondoren aipatzen den banaketa onartzea:

HODEIERTZ ABESBATZA	4.140,00
UDABERRI DANTZA TALDEA	6.480,00
ISIDRO LARRAÑAGA AKORDEOI ORKESTRA	1.530,00
ARIMAZ ORKESTRA	4.410,00
GAINDITZEN ELKARTEA	2.430,00
ANTXON BANDRES BIDAIARIEN TXOKOA	1.260,00
TARGAZKI ELKARTEA	1.890,00
GALZAUNDI EUSKARA TALDEA	1.980,00
GUZTIRA	24.120,00

BIGARRENA.- Ez onartzea Lask Abesbatzak egin duen eskaera, superabita daukalako.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontu-hartzaitzari, Gazteri zerbitzuari eta interesatuei.

6.- Iurreamendi Egoitza: Ekaineko faktura.

Iurreamendi egoitzak ekaineko kuoten likidazioa aurkeztu du.

Hori horrela, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Iurreamendi egoitzari ordaintzea ekaineko kuoten likidazioari dagokion zenbatekoa, **16.684,76** €-koa, honela banatuta:

Autonomoen kostua: 628,80 €

Elbarrien defizita: 16.055,96 €

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontu-hartzaitzari eta Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako departamentuari.

7.- Berdintasuneko dirulaguntzak.

Berdintasun batzordeak egin duen txostenarekin bat etorriz, Gobernu Batzak honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Ondoren aipatzen diren elkarteei dirulaguntza hauek ematea:

KOKU-YÓ ELKARTEA	2.250,00 €
ANA YURD ELKARTEA	2.225,00 €
GUZTIRA	4.475,00€

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontu-hartzailetzari, Berdintasuna departamentuari eta interesatuei.

8.- Aldabako Intxur Auzo elkarte eta udalaren arteko hitzarmenaren aldaketa.

Tolosako Udalak eta Aldabako Intxur auzo elkartearen artean hitzarmena sinatu zen 2014ko urriaren 31n, auzoaren garapeneko helburu zerranda gauzatzeko.

Honen baitan, Intxur Auzo Elkarteak, 2016ko otsailaren 11n, 2016ko ekintzak eta aurrekontua aurkeztu zituen.

Gobernu Batzarrak, 2016ko otsailaren 29an, Aldabako Intxur Elkarteari 6.000 euroko dirulaguntza ematea erabaki zuen eta %50-a aurreratzea. Ondorioz, Aldabako Intxur Elkarteak 3.000 euroko aurrerapena jaso du.

2016ko uztailaren, 20an, Intxur Elkarteak idatzia aurkeztu du kopuru gehiago aurreratzeko eskatuz, ondorengo arrazoiak direla eta:

- Elkartearen gastu handiena argi indarrarena da. Orain arte ordaindutako hainbat gastuen faktura aurkeztu dituzte.
- Aurten falta zaizkien ekitaldiak ondo burutu ahal izateko dirulaguntzaren beste zati bat aurreratzea behar dute.
- Elkarteak bere kontuen egoera aurkeztu du.

Tolosako Udala eta Intxur Auzo Elkartearen artean sinatutako hitzarmenaren Lehen klausularen 6. puntuak (jardueren finantziazioa) zera dio: Gizarte, kultur, kirol eta auzoko

jaien jarduerak finantzatzeko aurrekontu partida bat jartzea. Partidaren %50-a urte hasieran ekintzak burutu ahal izateko, gainontzekoa hau justifikatu ondoren.

Aipatutakoa kontuan izanik eta Ingurumen Teknikariak egin duen txostenarekin bat etorritik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Udala eta Aldabako Intxur Elkartearen arteko hitzarmenaren Lehen klausularen 6. puntua mantentzea. Baina, jada aurreratu zaion partidaren %50-a emateaz gain, partidaren %25-eko bigarren aurrerapen bat ematea, hain zuzen 1.500 euro.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontu-hartzaitzari eta Intxur Elkarteari.

9.-Tolosako Merkataritza, Ostalaritza, Turismo eta Feriak dinamizatzeko zerbitzuaren esleipena.

Bi mila hamaseiko maiatzaren 30ean egindako Gobernu Batzarrean onartu zen Tolosako merkataritza, ostalaritza, turismo eta feriak dinamizatzeko zerbitzua kontratatzeke espedientea.

Izapideak egin ondoren, lizitazioa GAOn eta Kontratatzailearen profilean argitaratu zen, interesatuek proposamenak aurkez zitzaten.

Lizitazio epean, honako hau aurkeztu da: Ikertalde Grupo Consultor, S.A.

Bi mila hamaseiko uztailaren 20an, Kontratazio Mahaiak, egun berean egindako txosten teknikoaren arabera, esleipena Ikertalde Grupo Consultor, S.A., enpresaren alde egitea proposatu zuen.

Hori horrela, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Lizitazio egintza baliozkotzat jotzea eta Ikertalde Grupo Consultor, S.A., enpresari adjudikatzea Tolosako merkataritza, ostalaritza, turismo eta feriak dinamizatzeko zerbitzua, hurrengo era honetan:

* Prezioa: 69.840,00 euro (BEZ-a barne).

* Kontratuaren epea: Urte batekoa, beste urtebete luzatzeko aukera izango da aurretik bi aldeak ados jartzen badira.

BIGARRENA.- Kontratuaren formalizazioa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta kontratatzailearen profilean argitaratzea, adjudikatzen denetik berrogeita zortzi eguneko epearen barruan.

10.- Ferialekua birgaitzeko baldintza pleguak onartzea.

Kontratazio-proposamena, horrekin batera doan dokumentazioa eta gaiarekin lotutako gainontzeko gorabeherak ikusita, baita Hirigintza Batzordeak jaulki duen txostenarekin bat etorritz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

Vista la correspondiente propuesta de contratación, la documentación que se acompaña, así como las demás circunstancias relacionadas con el asunto, la Junta de Gobierno, a propuesta de la comisión informativa de Urbanismo, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

ERABAKI DU

ACUERDA

LEHENA.-Onartzea Ferialekuan barne-erreforma egiteko proiektua, 2016ko ekainean Juan Antonio Aranburu Aizpuru arkitekto teknikoak idatzia.

PRIMERO.-Aprobar el Proyecto de Reforma interior del edificio del Ferial, redactado por el arquitecto técnico D. Juan Antonio Aranburu Aizpuru con fecha junio de 2016.

BIGARRENA.-Espedientea onartzea Ferialekuan barne-erreforma egiteko proiektuan jasotako obrak kontratatzeke. Lizitazio-tipoa hau da: 119.296,57 euro. Aurreko zenbatekotik, balio erantsiaren gaineko zergari 20.704,36 euro dagozkio.

SEGUNDO.-Aprobar el expediente para la contratación de las obras contenidas en el Proyecto de Reforma Interior del edificio del Ferial, cuyo tipo de licitación se determina en 119.296,57 euros. De la cantidad anterior, corresponde en concepto de Impuesto sobre el Valor añadido la cantidad de 20.704,36 euros.

HIRUGARRENA.-119.296,57 euroko gastua baliatzea 0700.622.02.920.33 partidaren kargura.

TERCERO.-Disponer el gasto de 119.296,57 euros, con cargo a la partida 0700.622.02.920.33

LAUGARRENA.-Onartzea klausula administratibo partikularren plegua, aipameneko obrak kontratatzeke.

CUARTO.-Aprobar el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares para la contratación de los referidos trabajos.

BOSGARRENA.-Adjudikatzeko prozedurari hasiera ematea eta, horretarako,

QUINTO.-Dar inicio al procedimiento de contratación, cursando las correspon-

dagozkion gonbitak luzatzea eskaintzak dientes invitaciones a presentar oferta. aurkezteko.

11.- Tolosako Paper Eskolaren 50. urteurrena. Udalaren dirulaguntza.

Tolosako Paper Eskolak 50 urte bete ditu aurten. Hori dela eta, hainbat ekimen eta ekitaldi antolatu dituzte eskolaren kudeatzaileek, adierazteko berrogeita hamar urte horietan egindako ibilbidea, lana eta aurrera begirako asmoak.

Ildo horretatik, Tolosako udalari ospakizunen programarako aurreikusitako ekimenak diruz laguntzeko eskatu zioten. Horretarako, Paper Eskolaren kudeatzaileek aurrekontu bat aurkeztu zuten, egiteko guztien zehaztasunekin: ekimenen kudeaketa integrala, materiala, baliabideak, urteurrenaren liburua, ekitaldiak eta jarduerak. Aurrekontua, guztira, 26.874,10 eurora iristen zen, Paper Eskolaren kudeatzaileek (FP Don Bosco) aurkeztutako agiriaren arabera.

Tolosako udaleko Hizkuntza Politika eta Hezkuntza batzordea hainbat bileretan aritu da Tolosako Paper Eskolak -50 urte bete dituela eta- Tolosako Udalari egindako laguntza eskaera eztabaidatzen eta aztertzen: 2016ko apirilaren 20an, maiatzaren 26an eta ekainaren 30ean.

Laburbilduz, Tolosako Udaleko Hizkuntza Politika eta Hezkuntza batzordeak, aipatutako bilera guztietan, aho batez adierazi izan du Paper Eskolaren 50. urteurrena ospatzeko antolatutako egitaraua diruz laguntzeko bere asmoa.

Horrenbestez, aurreko guztia kontuan hartuz eta Hizkuntza Politika eta Hezkuntza batzordeak ekainaren 30eko bileran diktaminatuarekin bat etorritz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Paper Eskolaren 50. urteurrena dela eta, udalak bere gain hartzea argitaratu duten liburuxkaren itzulpena (aurrekontua: 1.043,38 euro gehi BEZa) eta, era berean, beste 5.000 euroko dirulaguntza ematea.

BIGARRENA.- Udalaren ekarpena bideratzeko, hitzarmena egitea Paper Eskolarekin.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontu-hartzaitzari, Hizkuntza Politika eta hezkuntza departamentuari eta Tolosako Paper Eskolari.

12.-Berazubiko Biribilgunea eta suhiltzailekoen artean irisgarritasuna hobetzeko proiektua. Proyecto de mejora de accesibilidad de la rotonda de Berazubi a la rotonda de Bomberos.

Kontratazio-proposamena, horrekin batera doan dokumentazioa eta gaiarekin lotutako gainontzeko gorabeherak ikusita, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

Vista la correspondiente propuesta de contratación, la documentación que se acompaña, así como las demás circunstancias relacionadas con el asunto, la Comisión de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

ERABAKI DU

LEHENA.-Onartzea Berazubiko biribilgunea eta suhiltzailekoen artean irisgarritasuna hobetzeko proiektua, INJELAN, SL enpresak 2016ko ekainean idatzia, hain zuzen ere.

BIGARRENA.-Espedientea onartzea Berazubiko biribilgunea eta suhiltzailekoen artean irisgarritasuna hobetzeko proiektuan jasotako obrak kontratatzeko. Litzitazio-tipoa hau da: 462.429,11 € (laurehunta hirurogeita hamabi mila laurehun eta hogeita bedderatzi euro eta hamaika zentimo).

Prezio zehatz hori honelaxe dago banatuta: 382.172,82 euroko balio estimatua; eta Balio Erantsiaren gaineko Zergari dagozkion 80.256,29

HIRUGARRENA.-462.429,10 euroko gastua baliatzea, horietatik 387.319,51 euro 0700.601.45.153.20. partidaren kargura joango dira eta gainontzekoa, hau da: 75.109,60 euro (Gipuzkoako Urak enpresak aportatu beharrekoak) kreditu aldaketaren kontura.

LAUGARRENA.-Onartzea klausula administratibo partikularren plegua, aipameneko obrak kontratatzeko.

BOSGARRENA.-Adjudikatzekeo prozedurari hasiera ematea eta, horretarako, litzitazioaren deia egitea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Kontratatzailerean profilean.

ACUERDA

PRIMERO.-Aprobar el Proyecto de Mejora de accesibilidad de la rotonda de Berazubi a la rotonda de Bomberos redactado por INJELAN, S.L. con fecha junio de 2016.

SEGUNDO.-Aprobar el expediente para la contratación de las obras contenidas en el Proyecto de Mejora de accesibilidad de la rotonda de Berazubi a la rotonda de Bomberos, cuyo tipo de licitación se determina en 462.429,11 € (cuatrocientos sesenta y dos mil cuatrocientos veintinueve euros y once céntimos).

El precio cierto anterior queda desglosado en un valor estimado de 382.172,82 euros y en el Impuesto sobre el Valor Añadido de 80.256,29 euros.

TERCERO.-Disponer el gasto de 462.429,10 euros, de los cuales 387.319,50 euros irán con cargo a la partida 0700.601.45.153.20 y el resto, es decir: 75.109,60 euros (aportación a realizar por Gipuzkoako Urak), con cargo de la modificación de créditos.

CUARTO.-Aprobar el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares para la contratación de los referidos trabajos.

QUINTO.-Iniciar el procedimiento de adjudicación y, a tal efecto, convocar licitación publicando en el BO de Gipuzkoa y en el perfil del contratante.

13.-“7.1 Ezkerraldea” azpiesparruko plan bereziaren aldaketari hasierako onespena ematea/ Modificación del Plan Especial de rehabilitación del subámbito “7.1 margen izquierda”.

2014ko apirilaren 21ean, Gobernu batzarrak erabaki zuen hasierako onarpena ematea “7.1. Ezkerraldea” azpi-eremuko Birgaitze Plan Bereziaren aldaketari.

Aldaketaren dokumentua Kantauriko Konfederazio Hidraulikoari bidali zitzaion eta honek bere desadostasuna azaldu zion Plan Bereziaren aldaketaren onarpenari.

Ondoren, hainbat lan bilera egin ziren Konfederazioarekin eta horien ondorioz, 2016ko ekainaren 29an, Lankidetzta-Protokoloa Orokor bat sinatu zen Konfederazioarekin, zeinak Oria Ibaiaren ubideratze-lerro berri bat aurreikusten duen, eta, gainera, “7.1. Ezkerraldea” azpi-eremuaren Plan Bereziaren aldaketak jaso beharko du ubideratze-lerro berria.

Lankidetzta-Protokolo Orokorari egokitzeko egiten den Plan Bereziaren aldaketa funtsezko aldaketatzat hartu behar da aurreko dokumentuarekin alderatuz, 2014ko apirilaren 21ean hasierako onarpena jaso zuenarekin, hain zuzen ere. Ondorioz, bertan behera utzi behar da hasierako onarpen hori eta, hasierako onarpen berria eman behar zaio Lankidetzta-Protokoloak ezartzen dituen ezaugarriei egokitutako Plan Bereziaren Aldaketaren dokumentuari .

Oraingo aldaketaren xedea da Plan Berezia Lankidetzta-protokoloari egokitzea eta, laburbilduz, honako gai hauetan oinarritzen da:

El 21 de abril de 2014, la Junta de Gobierno acordó aprobar inicialmente la Modificación del Plan Especial de Rehabilitación del sub-ámbito “7.1. Ezkerraldea”.

Una vez remitido el documento de modificación al organismo de Cuenca, la Confederación Hidrográfica del Cantábrico mostró su disconformidad a la aprobación del Plan.

Posteriormente se mantuvieron diversas sesiones de trabajo con Confederación que han dado como resultado la firma de un Protocolo General de Colaboración, de fecha 29 de junio de 2016, que plantea una línea de encauzamiento del Río Oria que debe plasmarse en la Modificación del Plan Especial de Rehabilitación del sub-ámbito “7.1. Ezkerraldea”.

Esta adaptación de la modificación del Plan Especial a lo previsto en el Protocolo General de Colaboración anteriormente mencionado supone una variación sustancial respecto del documento aprobado inicialmente con fecha 21 de abril de 2014, por lo que se debe de dejar sin efecto esta aprobación inicial, para proceder a una nueva aprobación inicial del documento de Modificación del Plan Especial, una vez adaptado las determinaciones del Protocolo de Colaboración.

La presente modificación tiene como objeto fundamental adaptar el Plan Especial al Protocolo General de Colaboración que a modo de resumen se fundamenta en las siguientes cuestiones:

-Oria Ibaiaren ubideratze-lerro berri bat zehaztea.

-Sotoko aparkalekua eta "D" izeneko eraikina berriro zehaztea, aurrekoak ez baitira bateragarriak urbideratze-lerro berriarekin.

-Andre Mariko aparkalekuarekin aurreikusitako sotoko bide-lotura bertan behera uztea.

-Ur Agentziak uholde arriskua ekidite aldera gomendatutako eginkizunak aurreikustea .

Gainera, beste zehaztapen batzuk aldatuko dira proposamena arrazionalizatzeko ez baitira beharrezkoak ikusten:

-Sotorako aparkalekuaren bi sarrerako arrapalak desagertu egiten dira, eta, soluzio modura sarrera eta irteerako arrapala bakarra proposatzen da.

-Eraikinen lerrokadurak egokitzen dira.

-Oyarbide Hostalaren eraikina kontsolidatu egiten da, bere eranskin degradatuak izan ezik.

Azkenik, Plan Bereziaren dokumentua egokitu egiten da berau onartu ondoren atera den arautegiari.

Aurrekoa kontuan hartuta, Hirigintza Batzordeak jaulki duen txostenarekin bat etorriz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

-Redefinir la nueva línea de encauzamiento del Río Oria.

-Redefinir el aparcamiento de la planta de sótano y la edificación denominada "D" debido a su incompatibilidad con la nueva delimitación del cauce.

-Dejar sin efecto la conexión de la planta sótano con el aparcamiento de Andra Mari a lo largo del antiguo canal.

-Adoptar las medidas oportunas recomendadas por UR Agentzia en previsión de riesgo de inundabilidad.

Asimismo, se propone el ajuste de otras determinaciones, motivadas por su innecesariedad o racionalización de la propuesta:

-Eliminación de las dos rampas de acceso del aparcamiento de planta de sótano. Como solución de propondrá una única rampa de entrada y salida.

-Adaptar las alineaciones constructivas.

-Consolidar el edificio del Hostal Oyarbide salvo su añadidos degradantes.

Por último, se adaptará el documento del Plan Especial a diversa normativa sobrevenida.

A la vista de cuanto antecede y de conformidad con el dictamen de la comisión informativa de Urbanismo, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

ERABAKI DU

LEHENA.-2014ko apirilaren 21ean "7.1.

ACUERDA

PRIMERO.-Dejar sin efecto la aprobación

Ezkerraldea” azpi-eremuko Birgaitze Plan

inicial de la modificación del Plan del Plan

Bereziaren aldaketaren hasierako onarpena bertan behera uztea.

Especial de Rehabilitación del subámbito “7.1 Margen Izquierda” de Tolosa de 21 de abril de 2014.

BIGARRENA.-Tolosako “7.1. Ezkerraldea” azpi-eremuko Biragitze Plan Bereziaren aldaketari hasierako onarpena ematea. Aldaketaren dokumentua Erdu, S.L., enpresak egin du 2016ko ekainean.

SEGUNDO.-Proceder a la aprobación inicial de la modificación del Plan Especial de Rehabilitación del subámbito “7.1 Margen Izquierda” de Tolosa de conformidad al documento elaborado por la empresa Erdu, S.L., en julio de 2016.

HIRUGARRENA.-Espedientea jendaurrean jartzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki taulan eta egunkarietan argitaratuz. Plana 2016ko irailaren 15arte egongo da agerian (berau barne).

TERCERO.-Someter dicha aprobación inicial a exposición pública hasta el día 15 de septiembre de 2016 (éste incluido) mediante la publicación del anuncio correspondiente en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en los diarios de mayor difusión.

Era berean, erabakia jakinaraztea sektore eskumenak dituzten Herri-Administrazioei (Ur Agentziari eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari), dagozkien txostenak egin ditzaten.

Así mismo, comunicar el acuerdo a las Administraciones Públicas sectoriales competentes (Ur Agentzia y Departamento de Cultura del Gobierno Vasco) para que emitan los informes oportunos.

14.-Tolosako Udalerriko eraikin publikoak eta hiri altzariak garbitzeko zerbitzua kontratazeko espediente onartzea.

Tolosako udalerriko eraikin publikoak eta hiri altzariak garbitzeko zerbitzuaren kontrataziorako espedientea, baldintza administratibo partikularrak eta teknikoak aztertuta eta Ingurumen Auzo, Obra eta Zerbitzuetako batzordeak egin duen txostenarekin bat etorritik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea aipatutako kontratazio espedientea- prozedura irekiaren bidez, Tolosako udalerriko eraikin publikoak eta hiri altzariak garbitzeko zerbitzuren kontrataziorako.

* Gehienezko kopurua 436.000,00 eurokoa izango da. Aurreko zenbatekotik, balio erantsiaren gaineko zergari 75.669,42 euro dagozkio.

BIGARRENA.- Gastua dagokien aurrekontu-kredituaren kargura izatea.

HIRUGARRENA.- Onartzea klausula administratibo eta teknikoaren baldintza agiriak aipameneko zerbitzua kontratatzeko, prozedura irekiaren bidez.

LAUGARRENA.- Adjudikatzeko prozedurari hasiera ematea, eta horretarako lizitazio deia egitea, bidezko iragarkiak argitaratuz EBAOn, Estatuko Aldizkari Ofizialean, GAOn eta Kontratatzailearen profilean.

15.-24/2016 zenbakia duen faktura-zerrenda.

Kontu-hartzaitzak **24/2016** faktura zerrenda aurkeztu du; **257.505,26 €**-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

E R A B A K I D U

LEHENA.- **24/2016** faktura zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontu-hartzaitzari.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 10:00etan.

ALKATEA

DAZKARIA

Olatz Peon Ormazabal

Jose Luis Unanue Ugalde